

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure proiektua funtzionatu ahal izateko, haurrei behar duten atentzioa eta laguntza osoa ematea da. Haurren osasun fisikoaz gain, oso garrantzitsua da osasun emozionala lantzea. Gure egunerokotasunean egoera asko izango ditugulako eta beharrezkoa izango litzateke bakoitzaren emozioak ezagutzea, identifikatzea eta kudeatzea ahalik eta hoberen.

Horregatik, proiektu honekin aurrera egin nahi dugu eskoletan ez delako askoriklantzen.

Garrantzitsua izango da, haur bakoitza desberdina denez, programa edo plangintzapertsonalizatu bat izango dituztela haien garapen emozional on baterako. Horretaz aparte, espazio egokia eta beharrezko materiala eskura izan gure proiektua aurrera atera ahal izateko.

Beste aldetik, oso garrantzitsua da jarrera egokia izatea bai hurrekin zein familiekin. Arazoren bat sortzen baldin bada, edo familien artean desadostasunak baldin badaude, ulertu egin behar dugu eta lasaitasunez hartu behar dugu. Jarrera egokia izatea momentu guztietan oso garrantzitsua da.

Kontuan hartzeko, ikasleren bat klasera etorri ezin badu, edota orain pandemia dela eta, haur batek konfinatuta egon beharra baldin badu, webgune bidez konektatu ahal gara eta hortik komunikatu. Zalantzarik egon ezker, gure emailera bideratu eta ahalik eta azkarren erantzungo dugu.